

BOTANIC

- **GURE IZENA:** **Botanic**. Hasiara batean hainbat izen pentsatu genituen, baina batzutan ahozkatzeko zailak edota beste enpresa mota batzuekin asoziatuak zeudela konturatu ginen, beraz, izen hau hautatzea erabaki genuen, izen erraza eta unibertsala (herrialde guztietako biztanle guztiek ahoskatu dezaketena) bai eta laburra eta beraz gogoratzeko erraza.
- **ZEIN BEHAR ASETZEN DITU?:** Gure enpresak bi zerbitzu eskaintzen ditu. Hasteko, landareak zaintzeko zerbitzua eskaintzen dugu. Esate baterako, oporretan joanez gero zuen landareak zaintzeko prest gaude. Gure ustez, familia bat oporretara joaten denean, oso neketsua da norbaiti esatea etxean dauden landareak zaintzen dituela, eta horregatik pentsatu dugu ideia hori lagungarria izan daitekeela, batez ere familiak eta, batez ere, adineko pertsonak lasai joan daitezten eta gehiago bidaiatzera animatzeko. Gainera badakigu familia batzuek ez dutela landareak zaintzeko inor, eta horregatik uste dugu zerbitzu hori ideia ona izan daitekeela familien lasaitasunari lehentasuna emateko. Bigarren zerbitzuari dagokionez, prest gaude landareen kurtsuak eskaintzeko. Kurtsu hauek aurrera eramateko, prest gaude eskoletara, intitutuetara eta egoitzetara gerturatzeko kurtsuak eskaintzeko. Esate baterako, erresidentzia batean prest gaude agureei kurtsuak eskaintzeko, pentsatzen dugulako, agian beraiek interesatuta egongo direla eta une on bat pasatuko dutela loreak zaintzen ikasten. Izan ere, lehen esan bezala, prest gaude eskoletako umeei ikasketak eskaintzeko pentsatzen dugulako erabilgarria izan daitekelako beraiantzat jolasten ikastea landareak zaintzeko. Era berean, pentsatzen dugu, dei bat egin ez gero, haiek tailerrera gerturatu daitezkeela. Gure aburuz, bideragarriagoa da haiek lantegira gerturatzeko beste giro bat arnasteko eta erosotasun-eremutik ateratzeko. Horrela, erabat desberdina den giroan sar daitezke, eta, era berean, esperientzia hurbilago bizi dezakete.
- **IZAERA JURIDIKOA:** Kooperatiba, hau da; borondatez elkartutako pertsonen elkarte autonomo bat gara, zeinaren administrazioa eta kudeaketa bazkideek adosten duten moduan egin behar baitira. Gure ustez izaera hau funtzionagarria da gure enpresara egokitzen badugu. Lehenbizi, beste izaera juridiko batzuk adosten ibili ginen, esate baterako sozietate anonimoa. Izan ere, nahiz eta xede batzuk izan, ez da enpresa oso handia beste batzuekin konparatuta eta arrazoituz gero, pentsatu genuen sozietate anonimo bat izatea ez zitzaigun bidezkoa iruditzen enpresa ertain bat bada. Guk pentsatu genuen sozietate anonimoa bidezkoa izango litzatekeela enpresa handientzako, jende gahiago akziotan inbertitu dezakelako, baina enpresa ertaina izanda ez genekien hori ondo funtzionatuko zuenik eta horregatik gure azkenengo erabakia kooperatiba izan da.
- **KOKAPENA:** Proiektu hau hasterakoan konturatu ginen loreak zaintzea oso garrantzitsua dela, izan ere, loreak gure ingurunearen parte dira eta beraz gure bizilekua eratzen dute. Xede bakarra izanda (Durangoko kanpoaldean zehazki baserri batean) 3 tokitan banatzen ditugu gure zerbitzuak → Orio (Donostialdean, zehazki kanpoaldean), Asturiasen, Llanesen kanpoaldean eta Galizian, Orenseren kanpoaldean. Orensen, Orion

eta Llanesen ditugun dendak/enpresak kanpoaldean kokatzea erabaki ditugu, hain zuzen ere, kanpoaldean erdiguenan baino gune berde gehiago topa daitezelako, eta gune berde horiek aprobetxatuz landareen zainketa bultzatuko genuke..

- **BEZEROAK:**

Gure zerbitzua 14 urtetik gorako biztanleriari zuzenduta dago gehienbat. Loreak zaintzeko ikastaroak edonork egin dezake baita 14 urteko nerabeek ere, baina azkenengo hauek gurasoen baimena beharko dute ikastaroak hasi ahal izateko. Loreen zainketari dagokionez, erabaki dugu 14 urtetik gorako biztanleriari zuzentzea eta ez gazteagoi. Uste dugu 14 urtetik beherako gazteek ez dutela gure zerbitzua kontratatzekeo beharrik izango, eta, hori baloratu ondoren, erabaki dugu gure zerbitzua kontratatu behar badute, deitu baino lehen gurasoei esateko eta haiek deitzeko. Gainera pentsatzen dugu, esperientziarik ez duten biztanleriarentzat klase zerbitzu hauek lagungarriak izan daitezkeela etorkizun ez oso urrunen baten loreen zainketara dedikatu nahi badute ;esate baterako, loradenda baten. Horretaz gain , adin ertaineko (18-40)urte tarteko bezeroak izango ditugu , hauek normalki esperientzia apur bat izaten dute hauek ere lehen ezan bezala kurtsoak hartu ahal izango dute(hobetu nahi badute edo hasieratik hasi nahi badute), Azkenik 50 urtetik gorakoak ditugu , hauek kurtsoak hasi baino arinago ere esperientzia izaten dute eta uste dugu horrek gure enpresan ere eragina izango duela jende gazteari ere lagundu diezaioketelako . Bezeroekin harremanak mantentzeko, pentsatzen dugu haien kezkei lehentasuna eman behar diegula, horretarako hileroko inkestak bidaliko dizkiegu pentsatzen dugulako haien beharrak garrantzitsuak direla eta guk horrela horiek aztertu eta hobetu ahal izateko. Gainera gure zerbitzua haiei guztiz bideratuta dago, beraz, haiekin kontaktua mantentzeko gmail bat sortuko dugu b.botanic@gmail.com bertan haien iritziak bota dezakete.

- **LEHIAKIDEAK:**

Ez dugu aurkitu gure zerbitzu berdina ematen dituzten enpresak, antzekoak bai, baina ez berdinak, beraz lehiakide gutxi ditugu. Hala ere, Landaretza ikastaroak ematen dituzten eskolak gure lehiakide sutsuak izango liratekeen eta batzuk aurkitu ditugu ingurumena zaintzen dituzten enpresekin batera;

- Instituto de Educación Secundaria (IES) IES. ITSASMENDIKOI DERIO: *LOREZAINZAKO GRADUA ESKAINTZEN DU*
- Instituto de Educación Secundaria (IES) IGNACIO AROZENA BARRUETATAR BENITO: *LOREZAINZAKO GRADUA ESKAINTZEN DU.*

Esan bezala, lehiakide hauek institutuak dira, beraz, ikasketak ematen dute guk egiten dugun antzera. Izan ere, guk bi zerbitzu eskaintzen ditugu, ez ditugu soilik klaseak ematen. Landareak zaintzeko zerbitzua lehentasuna ematen digu eta hori da besteengandik bereizten gaituaena.

- **HORNITZAILEAK:**

Enpresaren helburuak bete ahal izateko, hainbat hornitzaile behar ditugu, lehengaiak eta beharrezkoak diren materialak hornitzen gaituztenak. Esate baterako, landareen zainketa aurrera eramateko eta era berean kurtsoak aurrera eramateko helburuarekin, lurra, ura, loreontziak, era askotariko ongarriak(eta landareak ureztatzeko tresnak. Esate baterako, ureztatzailea, atxurra, arrastelua, eskorga.

- Esvenor, Urduliz, Bizkaia



- Transporterra(interneten bidez egiten dugu eskaria)



- Centro de jardineria: Gorbeia.



- Centro de jardineria Mondragon: Ekilore



- Leroy Merlin



- Aquaservice



- Agroquímicos ochoa S.L(OLAMENDI)



LOGOA:

Aurrean daukagun logoa, hainbat aukeren artean azkenik hautatua izan dena da. Logo hau jendeak Interneten bilatzen gaituenean edo publizitatean aterako dena izango da. Berde kolorea dauka, izan ere, gure enpresa landareak zaintzera dedikatzen da eta uste dugu berdea dela kolorerik egokiena hau transmititzeko. Hori gutxi balitz, ez genuen nahi logoa kolorez edo marrazkiz oso saturatua egotea, horregatik, hain gauza gutxi jarri ditugu, aldi berean, uste baitugu hobe dela, zeren gure begiak ez baitira despistatzen beste gauza batzuk ikusiz, benetan transmititu nahi dugunean baino.



- **FINANTZAKETA ITURRIAK:**

Dirua hainbat lekuetatik lortzeko nahia daukagu: Lehenik eta behin, enpresarekin hasi ahal izateko, mailegu bat eskatuko dugu, diru gutxi daukagulako eta autonomoak garelako, nahiz eta, enpresa sortu ahal izateko gure aurrezkiak erabiliko ditugun. Hori gutxi balitz, Espainia mailan, gu bezalako gazteentzat diru-laguntzak ematen ditu, eta guri "Gure ekintzaileen ildoak" 25.000 eta 75.000 euro artean emango digute, bermerik gabe, 40 urtera arteko gazteek bultzatutako enpresa-proiektuak abian jartzen laguntzeko. Edonola, estatuak horrelako ekimenak dituzten gaztetxeentzat dirua ematen diete, proiektuarekin aurre jarraitu ahal izateko, eta ekimena alde batera ez uzteko. Gazte askok proiektuarekin denbora gutxi ematen dutelako orokorrean.

Gainera, gure eskaintza egitean, bezeroak beraien landareak gurekin uzten dituztenean, dirua eman behar digute, hori baita, gure finantzaketa iturri nagusia. Lortzen dugun dirua, lankideentzat izango da noski, hori izango da hilean kobratuko dugun diru kopurua. Baina, behar ditugun gauza guztiak diru horreki ere ordaindu beharko ditugu, horretarako, gure enpresa ekonomikoki ondo joan behar da, bestela ezin izango dugu guztia hau ordaindu ezta guk dirua lortu ere ez.

MARKETING:

- Marketing-a egiteko aukera bat hurrengoa izango zen:

Gure zerbitzuaren prozesuarekin bideo bat egitea, hau da, jendeak epe laburrean edo luzean haien landareak zaintzeko gudan jartzen duten konfiantza erakusteko. Eta bideoan landare horiek nola zaintzen ditugun agertuko da. (Landare horiek zaintzeko erabiltzen ditugun produktuek eta objektuek gure logoa eraman behar dute enbasean). Gainera, badakigunez, gaur egun pertsona askok ez dakitela nola zaindu behar dituzten landareak. Horregatik bideoan ere agertuko da ematen ditugula landareak zaintzeko tailerrak.

Bideo hau irudi askoko bideoa izango litzateke, audio moduan jarritako hitz laburrez hornitua; izan ere, gehiagoz hitz egiten denean jendeak interesa galtzen du.

Bideoaren ezaugarriak:

Hasieran, gure logoa agertzea pantaila handian eta apurka apurka degradatzea paisai berde bat agertu arte. (Paisai hori lorez betea).

Geroago, gure zerbitzuaren prozesua agertzea, hau da, bideoan agertzea zelan bikote batek ekartzen dituen haien loreak gure zaintzan uzteko eta guk zaintzeko.

Ondoren, bideo zati laburrak agertu behar dira zelako zaintza ematen diegun landare haiei, eta azkenik, garrantzitsuena emaitza da, honekin esan nahi dugu bideoan agertu behar dela zelan bikote hori bueltan datorrela utzitako loreak hartzera eta haien aurpegian zorientasuna irudikatu behar da.

Amaitzeko, bikoteak galderatxo bat egingo du esanez zelako zaintza eman behar den loreak/landareak hain politak egoteko, orduan momentu honetan, zati laburtxo bat agertuko da esanez landareak zaintzeko eta babesteko metodoak jakin nahi badituzula, gure zerbitzuan klaseak ematen ditugula. Eta bideo honi bukaera emateko gure tailerren bideo zatitxo bat jarriko da jendez betea eta ikusi beharko da tailerrak oso praktikoak direla eta hitzaldi txikitxoaz gain beti landareekin kontaktua izango dutela.

Bideo hau, gazteek ikusteko (12-30) youtube-ko plataformara igoko genuke iragarki moduan.

Beste aldetik, 30 urte gorako nagusiek bideo hau ikusteko "Telecinco" kanalatik sustatuko genuke gure zerbitzua.

- Beste marketing aukera:

Sare sozialen erabilpena izango da. Gehienbat tik tok eta instagram. Gaur egun arrakasta izateko aplikazio hoberena tik tok da, orduan, aplikazio honetan kontu bat egingo genuke gure izena eta logotipoagaz.

Kontu honetan beti pertsona bat hizketan agertuko litzateke, baina ez hitzaldi luzeak emateko, baizik eta jendearen galderak erantzuteko.

Gaur egun, oso garrantzitsua da pantailaren atzean dauden pertsonekin naturaltasuna erakustea. Hau da, jendeari asko gustatzen zaio sortzailearekin harremana izatea, beraz, bideo asko egingo genituzke jendeak zerbitzuari buruz galdetzen dituen zalantzak argitzen. Horrela harreman "hurbil" moduko bat egingo genuke gure jarraitzaileekin.

Beste bideo ideiak izango lirateke, bideo zati oso laburrak igotzea etorritako jendearen iritziarekin edo prozesuaren bideo zati laburrak erakusten.

- Hurrengo ideia izango litzateke:

Herri desberdinetara joango gara, eta horietan bakoitzaren plazan (herri osoko gunerik jendetsuena da), karpa moduko bat jarriko dugu, dekorazio berdearekin eta karteldegi askorekin, jendearen arreta dei zezan; gainera, karparen ondotik hurbildu gabe igarotzen diren pertsonentzat bi pertsona egongo lirateke pertsona horiengana hurbiltzeko eta karpara hurbiltzeko konbentzitzen saiatzeko, gure zerbitzua gustuko izan dezaten. Gainera, karpara hurbiltzen diren pertsonen landare txiki bat eta txartel bat emango zaie gure markarekin (Botanic), eta landarerako zainketa nagusiak azalduko zaizkie. Gainera, karpa horretan gure produktuak saltzen saiatuko ginategi, enpresarentzat onura gehiago lortzeko.